

7

artikulua



ingurugiroa

LAUDIO

Hondakinak

XXXI



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Hiriko hondakinen sorrera

Gaur egun uste da herrialde industrializatuetan, batzaz beste, pertsona bakoitzak eguneko hondakinen kg bat baino gehiago sortzen duela. Laudion, oraindik ez gara heldu zenbateko horretara. 2002 urtean bizilagun eta eguneko 0,87 kg sortu ziren.

Orain arte, hondakinak pilatu egin izan ohi dira zabortegietan, baina horrek leku handia okupatzen zuen eta kutsatu egiten zuen zabortegiko lurzorua, airea, eta lurrazpiko ura ere.

Hondakinen kudeaketa jasangarria izaten hasi behar da zabor hondakinen ekoizpena gutxitzen saiatuz.

hondakinen birziklapena

Sortzen ditugun hiriko hondakinen zati handi bat, behintzat, bihurtu ahal da berriro materiale erabilgarrian (dela beira, papera eta kartoia, plastikoak, latak, bolumenekoak...) Hondakin horiek birzikla daitezke ekoizpen eta kontsumoko sistemara berriro bueltatuz.

Laudion, badaude, Garbiguneaz aparte, bide publikoan ipinitako edukiontziak, berdera beira, urdiner papera eta kartoia eta horira beste ontziki eta plastikoak botatzeko. 2002 urtean era berezian eta erreziklatutako portzentajea % 17,44 izan zen. Oso altua. Baina ezin gara ezer egin gabe geratu.

aholkuak

- Ez nahastu zure herrian berezita bil daitezkeen zabor-mota ezberdinak (papera eta kartoia, kristalezko botilak eta flaskoak, latak eta brickak).
- Saiatu paketatutako produktuak ez erosten.
- Saiatu pilarik ez duten gailuak erosten, edo, behintzat sare elektrikora konekta daitezkeenak.

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Hondakinen ekoizpena gutxitu.
- Hondakinen birziklatzea gehitu.
- Hondakinen kudeaketaren ondorioz osasunarentzako edo ingurugiroarentzako arriskuak alboratzea.



Laudioren Jasangarritasunerako ekintza plana



Laudion zer egin da?

- **Ontzien bilketa berezia bultzatzea**

Laudio Ekintza Planak planteatzen du bultzatzea hiriko hondakinen eta zaborren birziklatzea sentsibilizazio eta kontzientziario programak egitearen bidez, lortu ahal izateko herritarren parte hartze eta laguntza handiagoa bilketa berezi horietan helburu handiagoak lortzeko.

Aldi berean, udalerrri osoan bide publikoan ipinitako ontzien bilketa berezia jasotzeko edukiontzien zenbatekoak Hiriko Hondakinen Planak finkatutako ratioak soberan betetzen baditu ere, Ekimen Planak proposatzen du edukiontzi horien hornidura gehitzea nahikoa ez diren aldeetan, hala nola, Santa Gurutze, Lateorro eta Aretan.

Laudion zer falta da egiteko?

- **Hiri hondakinak jasotzeko sistema hobetzea**

Etxebizitzetako hondakinen bilketak zailtasun batzuk aurkezten ditu udalerrian. Zeregin honetarako erabiltzen diren kamioiak oso sistema zaharkitua eta akatsduna darabiltze zaborren bilketa oso eraginkorra ez izatea bilakatzen duena. Ingurugiro Ekimeneko Planak, arazo horiek konpontzeko, planteatzen du aldatzea zaborrak bildu eta jasotzeko eta kamioiak zamatzeko sistema.

- **Bilketa bereziak beste hondakin batzuetara ere hedatzea**

Laudioko Ingurugiro Ekimen Planak proposatzen du aztertzea aukerarik dagoen edo ez eta arropa jasotzeko sistemaren bat martxan ipintzeko, hala nola etxeetan erabilitako hondakin toxiko arriskutsuak (sukaldeetan erabiltzen den landare olio), beste udalerrri batzuetan dagoeneko eginda dagoena.

Aldi berean, planteatzen du inplantatzea berriro pilak saltzen dituzten dendetan horiek era berezian jasotzeko. Horretarako dagozkion arduradunekin harremanetan jarri beharko da.



Zer bait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildumaren zortzigarren alea. Aleren bat ez badaukazu Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu. Udaletxeak aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizu.